

MAHAI NEGOZIATZAILEA 2022/05/02

LIZENTZIAK ETA BAIMENEN NEGOZIAZIOA

Irakasle funtzionarioen Akordio Arautzaile (lan hitzarmen) berria negoziatzen eman dugu azken urte luzea. Negoziazio horren parte da Lizentzia eta Baimenen atala. LABen eremu desberdinetan eman ditugun hausnarketa eta eztabaiden ondorioz, hamaika izan dira atal honi egin dizkiogun ekarpenak.

Berezi bi multzotan sailkatzen dira: batetik, zaintza eta enplegua uztartzeko neurriak, eta bestetik, bitarteko funtzionario (ordezko) eta karrerako funtzionarioak (finkoak) parekatzeari buruzkoak. Onartutakoen artean esanguratsuenak:

- 2021ko ekainaren 30ean Hezkuntza Sailak aldebakarrez argitaratu zuen eszedentzia eta lanaldi-murrizketen aginduari dagokionez, Sailaren jarrera kritikatzearekin bat, hau indargabetu eta negoziazio kolektiboaren bidez arautzea eskatzen genuen. Horretarako, LABentzat ezinbestekoa izan da: etetea eskatzeko epea kentzea eta lanaldi murrizketa hauek edozein momentutan eteteko salbuespenak txertatzea (familiako egoera ekonomikoa aldatzen denean, senide baten gaixotasun larriagatik, etxez aldatzeagatik, seme-alaben egokitzapen aldia dela-eta, premia larriak argudiatuta, edo baimena eskatzeko gehieneko epea agortzeagatik).
- **48. artikulua:** genero-indarkeriaren ondoriozko lizentzia izan ordez, indarkeria matxistaren ondoriozkoa izatea (terminoek adierazi ezberdinak dituzte eta indarkeria era ezberdinean ulertzen da. Berdintasun Legean oinarritu behar da)
- **55. artikulua**ren baitan txertatu: seme-alabak medikuaren kontsultara laguntzeko baimen berreskuragarria, baldin eta lanorduetatik kanpo ezin badira egin.
- **57. artikulua** (hautetsiak jardunak betetzeko baimena): LABek eskatu du baimenaren gutxienekoa 1/3koa izatea, 1/5 ez delako ordezkutzen. EBEPak arautzen duen gutxieneko baimena 1/5 mantentzen dute, baina zentro batean aldi berean 2 irakasle badaude murrizketa eskatuta, hauek ordezkaturiko dira.
- **58. artikulua:** Bitarteko funtzionarioek (ikasturte osoko lanpostua izan zein ordezko) egun dituzten lizentzia eta baimenez gain, "norberaren eginkizunetarako baimena" eskatu ahal izango dute alde zuzenetik urtebeteko zerbitzua eman izanaren baldintzarik gabe.
- **59. artikulua:** "Ordaindu gabeko baimena" eskatu ahal izango dute bitarteko funtzionarioek ere: 6 hilabeteko edo urte bateko eszedentzia.
- Edoskitze metatuaren kalkulua jardunaldi partzialean ari diren irakasleen kasuan guztietan era egokian aplikatu dadin hurrengoak jasotzea:
 - OSOA = 24 lan egun
 - MURRIZTUA 5/6 (%83,33) = 29 lanegun
 - MURRIZTUA 2/3 (%66,67) = 36 lanegun
 - MURRIZTUA 1/2 (%50) = 48 lanegun
 - MURRIZTUA 1/3 (%33,33) = 72 lanegun

Honezkero badakigu aipatu berri ditugun ekarpen hauek eta beste batzuk, behin-betiko dokumentuan jasoko direla. Ostiral honetan egingo den mahai-negoizatailean itxiera emango zaio negoziazioaren atal honi, eta dokumentuak aurrera eginez gero, berehala sartuko litzateke indarrean. LABen dokumentua sinatzeko nahikoa arrazoi ikusten dugu, hala ere, aurrera egin dezan ezinbestekoa da guretzako langileen ordezkariaren gehiengoak honekin bat egitea.

LAN HITZARMEN BERRIRAKO ETA IKASTETXEETAN IRAKASLEON HORNIKETA IRIZPIDEETARAKO KONPROMISOEN AKORDIOA

2020ko irailaren 15ean EAEn hezkuntza sistema osorako greba egin genuenetik, irakaskuntza publikoko irakasleen mahai-negoizataileetan luze aritu gara bi gairen inguruan: batetik, ikastetxeak irakaslez hornitzeko ezarri behar diren irizpide objektiboez (ratioak barne: taldekoak zein ikasle-irakasle); eta bestetik, Akordio Arautzaile berriak (lan hitzarmenak) jaso beharko litzuzkeen artikulua edo klausulen inguruan.

Negoizazio fasea bukaerara iristen ari da. Hori dela-eta, LABek afiliatuekin orain arteko ibilbidea baloratuko du maiatzaren 10etik 17ra bitarte eskualdeka antolatutako foroetan.

Foroak data, ordu eta leku hauetan izango dira:

IRAKASLEEN LAN HITZARMENERAKO FOROAK

Maiatzak 10

Igorre

10:00-14:00 eta 17:00-19:00

Barakaldo

10:00-14:00 eta 18:00-20:00

Maiatzak 11

Laudio, Altza (Donostia) eta Zarautz

10:00-14:00

Markina-Xemein

17:00-19:00

Maiatzak 12

Gasteiz eta Irun

10:00-14:00

Gernika

17:00-19:00

Zalla

10:00-14:00 eta 18:00- 20:00

Maiatzak 13

Eibar eta Beasain

10:00-14:00

Maiatzak 16

Bilbo

10:00-14:00 eta 18:00-20:00

Durango

10:00-14:00 eta 17:00-19:00

Maiatzak 17

Erandio

10:00-14:00 eta 18:00-20:00

LANBIDE HEZIKETAKOAK

Maiatzak 12

Durango

10:00-14:00

IZEN EMATEAK:

Orokorra: eaerakasleak@lab.eus

Araba: irakaskuntzaaraba@lab.eus

Bizkaia: irakaskuntzabizkaia@lab.eus

Gipuzkoa: irakaskuntzagipuzkoa@lab.eus



ESTABILIZAZIO PROZESUAK: LAN ESKAINTZA PUBLIKOAK

Hezkuntza Sailak atzo aldebakarrez publiko egin zituen abenduak 28ko 20/2021 legeari lotuta egin beharreko estabilizazio prozesuak (meritu lehiaketa eta oposizio-lehiaketa bidezkoak). Komunikabideetan esan zuenaren arabera hauek izango dira prozesuak eta kidego bakoitzeko lanpostu kopurua:

- 1- Merezimendu lehiaketa: 1.798 lanpostu
- 2- Oposizio-lehiaketa “ez baztertzaila”: 747 lanpostu
- 3- Oposizio-lehiaketa arrunta: 1.812 lanpostu

	Merezimendu-lehiaketa	Oposizio-lehiaketa “ez kanporatzailea”	Oposizio-lehiaketa arrunta	Guztira
Maisu-maistrak	714	125	836	1675
Bigarren Hezk. eta Lanbide Heziketa	1002	612	974	2588
Hizkuntza Eskola Ofizialak	44	-	-	44
Kontserbatorioak	18	-	-	18
Dantza	1	1	-	2
Arte Dramatikoa	3	2	-	5
Arte Plastikoak eta Diseinua	16	7	2	25
Guztira	1798	747	1812	4357

Argi dago Hezkuntza Sailak aurkeztutako kopuruak ez direla nahikoak 14.500 bitarteko langileontzako (interinoontzako), publiko egindako eskaintza horrek ez diola behin-behinekotasunaren arazoari soluziorik emango. Eskolek ezegonkortasuna kudeatzen jarraitu beharko dute. Gainera, LABek gogor kritikatzan du kopuru hauek aurkeztu diren egun berdinean publiko egin eta negoziatioari ateak itxi izana.

LABek ez-nahikotzat baloratzen du Hezkuntza Sailak eginiko eskaintza, izan ere, estrukturalak diren lanpostuetako asko falta direla uste du (aurrekontu-zuzkiduran dauden eta Lanpostu Zerrendan ez dauden lanpostuetako asko: funtzionamendukoak direnak, zerbitzu-eginkizun asko, etab.). Hori dela-eta, LAB Sindikatuak mobilizatzeko beharra adierazten du.

Euskal Herrian, 2022ko maiatzaren 3an